

**UDALEKUAK 2017**  
**LH3**

3	4	5	6	7
<b>ONGI ETORRI</b>	<b>IPIUA IGERILEKUA</b>	<b>KAMISETAK SORTZEN*</b>	<b>ARRAZTALOKO LURRETAN</b>	<b>IPIUA IGERILEKUA</b>
10	11	12	13	14 (1.hamabostaldia bukatu)
<b>UR JOLASAK**</b>	<b>IPIUA IGERILEKUA</b>	<b>SOINUENEA</b>	<b>SAHARA EGUNA</b>	<b>FLASHMOB GRABAKETA*** + AGURRA</b>
17 (2. hamabostaldia hasi)	18	19	20	21
<b>BERRIEI ONGI ETORRIA ZUREKIN JOLASEAN</b>	<b>IPIUA IGERILEKUA</b>	<b>URKABERA MENDI BUELTA</b>	<b>ERREKA**** (Erreka garbiketa)</b>	<b>ERREKAKO ZABORRA IKUSGAI</b>
24	25	26	27	28
<b>IPIUA IGERILEKUA</b>	<b>UDALEKURIK EZ</b>	<b>ERREKA****</b>	<b>JOLAS KOOPERATIBOAK + PETRA LEKUONA</b>	<b>ERALDATUZ AGURTU (transformer)</b>

**OHARRAK:**

\* Kamiseta txuri bat ekarri behar da.

\*\* Bainujantzia eta aldatzeko arropa ekarri behar da.

\*\*\* Grabaketarako baserritar gona beltza+kamiseta beltza ekarri behar da

\*\*\*\* Errekan ibiltzeko oinetako egokiak ekartzea komeni da.

# ARAUTEGIA

- Orduategia (9:30-13:30) errespetatzea eskatzen da.
- Udalekuetan zehar ahalik eta ohar gutxien banatuko ditugu. Beraz, plangintzatutako ekintzen gogorazpenik ez dugu bidaliko. Horregatik, kontuan hartu igerilekua eta erreka jartzen duenetan beharrezko gauzak ekartzea eta kamisetak sortzen jartzen duen egunerako kamiseta bat ekartzea. Plangintzan aldaketak ematen direnetan soilik bidaliko dugu oharra HHn eta LH1en. LH2tik aurrerako aldaketak hurrei ahoz jakinaraziko dizkiegu. Bestalde, egunero [www.gazteoiartzun.net](http://www.gazteoiartzun.net) eta [www.oiartzuarrak.org](http://www.oiartzuarrak.org) blogetan hurrengo eguneko mailaz mailako planaren berri emango dugu.
- Urtebetetzeak janaririk gabe ospatuko ditugu. Beraz, ez ezer ekartzea eskertuko genizueke.
- Udalekuetara gurpil gainean (bizikleta, patinetea,...) etortzeko aukera izango da. Eskura izango dugu bizikleten aparkalekua.
- Haur bakoitzak bere irudia babesteko eskubidea du, beraz, denon ardura da argazki eta grabaziorik ez egitea
- Haurrak jostailurik, dirurik, mugikorrik, kamerarik ez ekartzea eskatzen da.
- Haurrak udalekuetako ordutegian atera beharko balu orri bat betetzea eta sinatzea eskatuko da.
- Ez dugu botikarik emango.
- Autobus geltoki bakoitzeko ordutegia errespetatzea eskatzen da, bai goizean autobusean uzteko orduan baita eguerdian jasotzekoan ere. Ordutegi zehatza guraso bileran zabalduko dugu. Baita aurretik aipatutako blogetan ere.
- Hamaiketarako denbora tarte bat utziko dugu egunero. Familiaren esku janaria ekarri edo ez.